

dFERIA08k 37.000 ikusle bildu ditu

- Balantze orokorra baikorra da, bai ikusle kopuruan, bai ikuskizunen kalitatean
- 36 ikuskizun izan dira hiriko eszenatoki eta kaleetan programatutako 82 emanaldietan
- Victoria Eugenia Antzokia dFERIAko erdigune izan da berriro, formatu handiko programazio garaikide eta internazionalarengatik.

Hamalagarren edizioaren ondoren, dFERIA erreferentzia gisa finkatzen ari da Espainia mailan, bertan parte hartu duten ikusle eta profesionalen kopuruek ziurtatzen duten bezala. Antolakuntzak kaleko programazioaren aldeko apustua egin du, aurten ere eta publikoaren oniritzia jaso du.

Victoria Eugenia Antzokia dFERIAren erdigune izan da, berriro ere, kalitate eta garrantzi handiko programazioa eskaini duelarik.

Antolakuntzak egindako kalkuluen arabera, **37.000 lagunek ikusi dute programatutako ikuskizunetako bat**, antzokietan nahiz kaleetan zehar. **Horiei, gainera, beste jarduera batzuetako 2.748 partehartzaileak** gehitu behar zaizkie (mahai-inguruak, topaketak, bilerak, Negozioen topalekua, erakusketa, Berriketan...).

36 ikuskizunetako 82 emanaldi programatu dira.

- Ikuskizunetatik **2 erabateko estreinaldiak** izan dira: *Guy & Félix* eta *Hnuy IIIa*.
- **Europa mailan 6 estreinaldi izan dira:** *Perras*, *No me dejes así*, *Alaska*, *Escrito en el barro*, *Algo de ruido hace* eta *Su- Seso Taladro*.
- **8 estreinaldi Espainian:** *Méli – Mélo*, *My mother naked*, *El nombre*, *Julia & Natalia*, *Pulp Show*, *Get the Shoe*, *Les vitaminés* eta *Equipe B*.
- **4 estreinaldi Euskadin:** *Shoku*, *Noche de Reyes*, *Fragmentos* eta *Like an idiot*.
- **Gaztelerazko estreinaldiak:** *Hermanas*, *Te acuerdas abuela*, *La exacta superficie del roble* eta *Chapitô*.

dFERIAko programazioaren **%66a estreinaldiak** izan dira, dFERIA ikuskizunak estreinatzeke erakusleihen egokia dela erakutsiz.

Kale proposamenen alorrean, Feriak iaz estreinatutako **Arte Bira** formularekin jarraitu du, beste konpainia batzuk bildu ditugularik aurten. Gutxi gorabehera, **27.700 lagunek gozatu ahal izan dute**, modu batera edo bestera, kale ikuskizun hauekin. Besteak beste, *Su - Seso Taladro, Malditas eta Muda* ikuskizunak.

PROGRAMAZIOA

Guztira 36 ikuskizun programatu dira 82 emanaldi ezberdinetan. Konpainia hauetatik, % **28a Euskadikoak** izan dira, eta %**17a Espainiakoak**. Aurten, eta dFERIAren nazioarteko izaera indartuz, **18** konpainia atzerritarrek hartu dute parte Frantzia, Belgika, Ukraina, Kanada, Errusia, Turkia, Erresuma Batua, Japonia, Brasil, Portugal, Txile eta Argentinari etorritakoak. Talde hauek guztiek, aurten parte hartu duten konpainien %**55a** suposatu dute.

Konpainien jatorria horrela banatzen da:

- Euskal konpainiak: % **28**
- Estatuko konpainiak: % **17**
- Nazioarteko konpainiak: % **55**

Ikuskizunen banaketa, antzerki-motaren arabera:

- Dantza: % **44**
 - Antzerkia: % **33**
 - Zirkoa: % **23**
-
- Kale proposamenak: % **63**
 - Areto proposamenak: % **37**

HEDABIDEAK

dFERIAren hamahirugarren edizioak isla handia lortu du, euskal zein espainiar mailako komunikabideetan: prentsa idatzia, irratia, telebista eta Internet, dFERIA08ari buruzko informazioa eman dute albiste, elkarrizketa eta erreportajeen bitartez. Guztira **70 kazetari eta profesional** kreditatu dira egunez-eguneko jarraipena egiteko programatutako ikuskizunei. Honek ahalbidetzen du dFERIAren izen ona urtetik urtera sendotzea.

PROGRAMATZAILE ETA KREDITATUAK

dFERIA08ren inguruan bildutako profesional kopurua 540etik gorakoa izan da. Uztailaren 8tik 12ra bitartean **103 programatzaile** egon dira Donostian. Beste kreditatuen artean **banatzaileak (40) eta konpainietako kideak (42)** izan dira. Beraz, 185 erosle potentzialesk egon dira parte hartu duten konpainien ikuskizunak jarraitzen.

PUBLIKOA

Edizio honetan inoiz baino ikusle gehiago izan dira dFERIAN. Honek, kale programazioa eta areto programazioa uztartzearen aldeko antolakuntzak eginiko apustua indartzen du, Arte Eszenikoen diziplina ezberdinak kontutan hartuz.

JARDUERA PARALELOAK

Aurten ere, jarduera paraleloek dFERIA erakargarriago egiten lagundu dute, oso publiko ezberdinaren arreta jaso dutelarik.

- **Victoria Eugenia Sariak** laugarren urtea bete du eta aurten Tanttaka Teatroaren ibilbidea saritu du. Honela, konpainia honen izena **Alfonso Sastre, Manizalesko Jaialdia** eta **Enkarni Genua** eta **Manolo Gómezek** osaturiko zerrenda handitu du.

-Feria Estatuko arte eszenikoen profesionalen **5 bilera garrantzitsu** ospatzeko aukeratutako markoa izan da; bilera horietako lanaren eta ondorioen arabera da inguruko sektorearen etorkizuna. Ospatutako bilerak:

- **SAREA (Euskal Antzokien Sarea):** 52 lagun
- **ESKENA (Antzerki Enpresen Elkarte):** 30 lagun
- **COFAE (Estatuko Ferien Koordinakundea):** 14 lagun
- **Programatzaile eta banatzaileentzako Negozio Topalekua:** 50 lagun
- **Directiva de la Red Española de Teatros, Auditorios y Circuitos de titularidad pública:** 10 lagun
- **Mahai-inguruak:** 50 lagun
- **Berriketan...:** 172 lagun

- Aurkezpenak (Mercartes, Ariadna Programa, “Bitxikeriak: andanzas de títeres y titiriteros de Unima Euskal Herria”): 112
- Erakusketa eta beste: 2.109 lagun